



Zer egin dezakegu zure erakundearen alde Koordinakundeko GGKE bat bazara?

Atxikitako GGKEentzako zerbitzuak

❖ GGKEaren jarduerak ezagutaraztea, honela:

- congdn Navarra.org [webgunea](#) (25.000 bisitatik gora urteko). Atal hauek ditu, besteak beste:
 - Lan egiteko eta boluntario aritzeko eskaintzak.
 - Ekitaldien agenda: hitzaldiak, erakustaldiak...
 - Ikastaroak.
- [Hamabostean behingo buletina](#) (mota guztietako 2.000tik gora pertsona eta erakundek jasotzen dute).
- **Sare sozialak:** [Facebook](#) eta [Twitter](#) (730 eta 1060 pertsona eta erakundek jarraitzen digute haietan, hurrenez hurren).
- Koordinakundeko GGKEen [direktoria](#).
- [Garapenerako hezkuntza-materialen katalogoa](#). GGKEek garapenerako hezkuntzaren arloan duten baliabideak biltzen ditu. Urtero eguneratzen da.
- [Nazioarteko boluntariotzari buruzko eskuliburua](#). GGKEen boluntariotza-programei buruzko informazioa, lekuan bertan garatutakoei buruzkoa batez ere.
- [Ibilbide solidarioak](#): GGKEen proposamenak, sentsibilizazio-arlokoak
- **Jendearentzako informazio-bulegoa**. Aurrez aurre zein telefono eta posta elektronikoko bidez. 190 kontsulta artatu zituen iaz.

❖ Zure GGKEa hedabideetan gehiago agertzea ahalbidetzen dugu.

- **Irratsaioak:** astean behin hitz egiten dugu Cadena Ser irrati-etxeko Ser Solidario saioan eta hamabost egunean behin [Radio Nacional](#) -ean.
- Akordio bat sinatu genuen **Diario de Noticias** egunkariarekin iritzi-artikuluak argitaratzeko.
- Zure esku ditugu **hedabideen zerrenda eguneratuak**.

- **Aholkularitza ematen dizuegu hedabideekin izan beharreko harremanetan:** harremanetarako pertsonak, jarduera-motak...

- **GGKEen eta kazetarien arteko topaketak** ahalbidetzen ditugu, hedabideen dinamikak ezagutze aldera. "Lan-gosari" modukoak dira, eta hedabideetako kazetariak (prentsa, irratia eta telebista) etortzen dira Koordinakundeko egoitzara; ordu eta erdiko iraupena izan ohi dute gehienez.

· **Txosten bereziak egiten ditugu larrialdi-kasuetan.**

Hedabideetara igorri eta gure baliabideen bidez hedatzen dira, nahi duten pertsona eta erakundeek diruz lagun dezaten.

❖ **Informazioa sortzen dugu, Koordinakundeari eta haren GGKEei zein GGKEen Estatuko Koordinakundeari buruz gertatutako guztiaren berri izan dezazun.**

- **Barne-zirkularrak:** Koordinakundeak eta hark parte hartzen duen sareen barne-lanari buruzko informazioa biltzen dute. Soilik atxikitako GGKEek sartzeko moduko gunen batean daude: [Intranet](#).

- **GGKEen arteko bilera eta topaketak.**

- **"Esperientziak partekatzen" gunea:** zuen kontraparteei euren lana ezagutaraziko dute formatu horretan.

- **GGKEen Estatuko Koordinakundearen zirkularra** jasoko duzue, estatu mailako informazioak, prestakuntza-eskaintzak, prentsa-laburpenak eta abar biltzen dituenak. Harremanetarako pertsona: Carmen Alvarez, Estatuko Koordinakundeko kidea carmen.alvarez@coordinadoraongd.org.

❖ **Mobilizazio-ekintzetan parte hartzeko aukera.**

Koordinakundeak eta hark parte hartzen duen sare eta plataformek antolatutakoetan.

- *Iruña, harrera-hiria* herritarren ekimena.
- TTIP tratatuaren aurkako plataforma.
- Gizarte-erakundearen plataforma (Pobreziaren aurkako Borroka Sareak, REASEk, CERMINEk eta GGKEen Koordinakundeak osatuta)

Sare sozialen bidez izan dezakezue haien berri.

❖ **Prestakuntza-saioak antolatzen ditugu kontratatutako pertsonentzat eta boluntarioentzat.**

- **GGKEen Nafarroako Koordinakundeak eskainita:** Tailerrak: Nafarroako Gobernuak formularioak eta justifikazio-agiriak, garapen jasangarrirako helburuei buruzko jardunaldiak, jardunaldiak toki-entitateekin, sare sozialak erabiltzeko buruzko tailerrak...

- **Beste erakunde batzuek eskainita:** [Estatuko Koordinakundea](#) (onlineko plataforma du, eta lehentasuna dute Koordinakundeari atxikitako GGKEek), unibertsitateak, beste GGKE batzuk,...

– Erakundeek berek eskatutako prestakuntza.

❖ **Zuen GGKEak Koordinakundearen barruko lan-taldeetan parte hartzea ahalbidetzen dugu, hiru arlo hauetan:**

- Eragin politikoa eta sareak.
- Eragin soziala eta komunikazioa.
- Garapenerako hezkuntza.
- Baita [GGKEen Estatuko Koordinakundearen](#) lan-taldeetan ere.

❖ **Eskola solidarioak programan parte hartzea ahalbidetzen dugu.**
44 ikastetxe eta 14 GGKE parte hartzen ari dira egun.

❖ **Diru-laguntzen deialdiei buruzko informazio eguneratua ematen dizugu proiektuak aurkez ditzazun; deialdi publikoak zein pribatuak dira, toki, autonomia eta nazio mailakoak.**

❖ **Zuen jardun-arloei buruzko aholkularitza ematen dugu:**

Boluntarioritza, hezkuntza eta sentsibilizazioa, oinarriak eta deialdiak, enpresekiko harremanak, eta kudeaketa.

· **Estatuko Koordinakundearen Gardentasunaren eta gobernu egokiaren Zigilua lortzen laguntzen dizugu.**

Hainbat finantzatzaile hasi dira kalitate-ziurtagiri hori eskatzen. GGKEen Estatuko Koordinakundearen laguntza dugu horretarako. Harremanetarako: Elena Hidalgo (Proiektuak) elena.hidalgo@coordinadoraongd.org.

❖ **Zuen lanean laguntzeko txosten eta dokumentuak jartzen dizkizugu eskura:**

- Errefuxiatuak

[Toki-erakundeek errefuxiatuak hartzeko jokatu beharreko paperari buruzko dokumentua:](#)
GGKEen proposamenak, sentsibilizazio-arlokoak.

- Enpresen eta GGKEen arteko harremanak.

[GGKEen eta enpresen arteko harremanei buruzko gidaliburua:](#)

- Boluntarioritza.

[Nazioarteko boluntarioritzari buruzko eskuliburua.](#)

- Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioa.

Ibilbide solidarioak

Garapenerako hezkuntzari

buruzko baliabideen

katalogoa

- Koordinakundearen GGKEak.

GGKEen direktorioa

Harremanetarako pertsonak Idazkaritza Teknikoaren arlo bakoitzean:

- Koordinazioa: Teresa Burgui. coordinacion@congdnavarra.org. Tel: 948 24 06 74 (2. luzapena)
- Eragin politikoa eta sareak: Mariaje Huici. cooperaciondescentralizada@congdnavarra.org Tel: 948 24 06 74 (3. luzapena)
- Eragin soziala eta komunikazioa: Jesús Barcos. comunicación@congdnavarra.org Tel: 948 24 06 74 (1. luzapena)
- Garapenerako hezkuntza: Marian Pascual. educacion@congdnavarra.org Tel: 948 24 06 74 (4. luzapena)